


5 > HIRIAN IBILI!



aisa

AURKIBIDEA

1. Sarrera

1. Irakaslearentzako oharrak
2. Ikastunitatearen ibilbidea
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak

2. Atazak

- A Ataza:** Zerbitzuen ordutegia
- B Ataza:** Juliana Postetxean
- C Ataza:** Bidaia-txartelak
- D Ataza:** Zer egin behar dut gaur?

3. Eranskinak

1. Bideo-pasarteak

4. Material osagarriak

- A Ataza:** Zerbitzuen ordutegia
- 1. Orduak

1. Sarrera

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Herrialde guztietako hiri-zerbitzuek izaten dituzte funtzionamendu berezitasunak. Horren inguruan etorri berriak diren ikasleei hainbat argibide eskaintzea da ikastunitate honen helburua eta, horretarako, gure hiri eta herrietan ohikoak diren zerbitzuen ezaugarriak erakutsiko dizkiegu: funtzionamendu-ordutegia, jarduera zehatzak, errotulazioa, establezimenduen itxura...

Ikasleek, **A atazan**, hiriko zerbitzuen berri izango dute. Halaber, hauen oinarritzko ordutegia ezagutzeaz gain, orduak esateko egitura nagusia ikasiko dute. Atal honetan, ikasleen jatorritzko zonaldeen ohiturak oinarritzat hartuta, bertan erabiltzen diren zerbitzuen lan ordutegia eta hemengoa alderatzeko aukera izango dute.


B atazan, Julianak postetxea erabili behar du eskutitz bat Ekuadorrera bidaltzeko. Ikasleek Julianak egindako urratsak ulertu eta ohikoak diren hainbat zerbitzu establezimenduren jarduerak ezagutuko dituzte.

C atazan, berriz, hiriko garraioen inguruko informazioa jasoko dute: hiri gehienetan topa ditzaketan bidaiatzeko txartel-motak, ezaugarriak... Ikasleek beharretara zein egokitzen den erabaki dezakete, informazioaz baliatuta.

Ikastunitatean zehar ikusitakoak bildu beharko dituzte ikasleek **D atazan**. Hiriko zerbitzuak erabiliz, hainbat betebeharrak egiteko eskatuko zaie. Eginkizun horiek egunean zehar nola antolatuko dituen erabakiko du ikasle bakoitzak eta bere ikaskideei azalduko die.

Orduak esateko moduari arreta berezia eskainiko zaio **material osagarrian**. Horretara zuzendutako atazan, orduarekin lotutako hiztegia eta esaldiak ikusteko aukera izango dute.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA



3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA

- Hiriko zerbitzuak erabiltzeko informazioa ezagutzea

LEXIKOA

Anbulatorioa, aparkatu, arrunta, arte, atera, autobusa, atsedeen eguna, azoka, balio, banketxea, berehala gatoz, bidaia-txartela, bidaia, bidali, bukatu, deitu, dokumentuak, egun, e-maila, erosi, eskatu, estankoa, eta erdi, eta laurden, euroa, ezagutu, faktura, fakultatea, farmazia, gasolindegia, gazte, geltokia, gestioa, giroa, gunea, gutuna, inprimakia, Internet zerbitzua, irekita, itxita, kargatu, kioskoa, kreditua, kutxazain automatikoa, laurden gutxi, leihatila, liburutegia, merkatal, metroa, mintzalekua, museoa, parkinga, posta, postala, postetxea, prezioa, taldea, taxia, telegrama, tranbia, tori, txateatu, udala, urte, zerbitzua, ziurtatua...

MINTZAGAIAK

- Hiriko zerbitzuak (A)
- Ordu-tegiak (A)
- Hiriko garraioak (C)
- Bidaia-txartelak (C)

ELKARRERAGINA

- Prestatutako elkarrizketa antzeztea (C)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Euskal Herriko hiri-zerbitzuen ordutegiari buruzko informazioa ezagutzea (A)
- Posta erabiltzeko argibideak ulertzea (B)
- Zerbitzu establezimenduen jarduera eta erabilera ulertzea (B)
- Hiriko garraio eta bidaia-txartelen berri izatea (C)
- Hiriko zerbitzuetan eginbeharrekoak antolatzea (D)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- Ordua adierazteko egiturak (A)

EUSKAL KULTURA / GIZARTEA

- Hiriko zerbitzuak (A)

2. Atazak

A ATAZA: ZERBITZUEN ORDUTEGIA

55'

Helburu nagusia:

- Euskal Herriko hiri-zerbitzuen ordutegiari buruzko informazioa ezagutzea eta ikasleen jatorriko herrietakoekin alderatzea.

Helburuak:

- Zerbitzuen berri izan.
- Orduak ulertzea.
- Ordutegiekin lotutako informazioa ezagutzea.

ZERTAN DEN:

- Ikasleek hiri-zerbitzuen berri izango dute. Era berean, hauen oinarrizko ordutegia ezagutuko dute eta orduak esateko egitura nagusia ikasiko. Atal honetan, ikasleen jatorrizko zonaldeen ohiturak oinarritzat hartuta, bertan erabiltzen diren hiri-zerbitzuen lan ordutegia eta hemengo alderatzeko aukera izango dute.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Ordutegiarekin zerkusia duten irudiak dituzte ikasleek liburuan. Horrelakoak ikus daitezke herriko zerbitzu eta establezimenduetan. Galdetu ea ezagutzen dituzten, zer adierazten duten, ea erabiltzen diren horrelako elementuak beren herrietan eta, azkenik, zein gehiago bururatzen zaizkien. **(10')**

Ataza: hainbat zerbitzuren ordutegiak idatzi

- Ikasleek liburuan Euskal Herriko establezimenduen ohiko ordutegia dute. Euren herrietan zein ordutegi izaten duten idatziko dute hutsik dagoen zutabeetan. **(10')**

Feedbacka

- Ikasleak elkartu egingo dira, osatutako ordutegiak komenta ditzaten eta herrialde desberdinetan zerbitzu hauen ordutegia asko aldatzen den elkarri adieraz diezaioten. **(5')**
- Interesgarria litzateke ikasleen jatorrizko herrialdeetan zerbitzu gehiago ote dauden jakitea; beraz, galdetu ikasleei. **(10')**

Gramatika eta diskurtsoa

- Ikasleek **1. bideo-pasartea**¹ ikusiko dute, orduak entzun ditzaten. Ondoren, liburuko ordularietan azaltzen diren orduak osatuko dituzte, liburuko ereduari jarraituz. **(10')**
- Atazako ordutegietako bukaerei (ordutegia Euskal Herrian) erreparatzeko eskatuko diegu ikasleei eta nola irakurriko ote diren galdetuko. Esaiezu, bestalde, ordutegia osatzerakoan, zenbakiei *noiztik noizera* bukaera eranstean zaiela. Beraz, liburuan duten ereduari jarraituz, ordutegiak irakurriko dituzte euskaraz. **(10')**

¹ Zer ordu da. *BAI HORIXE!* 11. ikasgaia

IRAK. LIB. 4.1.

IK. LIB. 4.1.

Material osagarrian orduak lantzen jarraitzeko aukera duzu.

Helburu nagusia:

- Zerbitzua eskaintzen duten establezimenduen jarduera eta erabilera ezagutzea.

Helburuak:

- Posta erabiltzeko argibideak ulertzea.
- Zerbitzu-establezimenduak eta jarduerak ezagutzea.

Zertan den:

- Julianak postetxea erabili behar du bere gutuna bidaltzeko. Ikasleek, Julianak egindako urratsak identifikatuko dituzte. Ondoren, ohikoak diren hainbat zerbitzu-establezimendu beren jarduerarekin lotzeko eskatuko zaie.

PROZEDURA:**1****Atazaurrea**

- Komentatu ikasleekin munduaren leku batetik bestera idatziak bidaltzeko era asko daudela. Ondoren, liburuan dituzte irudietako idatziak (gutuna...) bidaltzeko era egokia (posta arrunta...) aukeratu behar dute. **(10')**

Zuzenketa-orria

POSTA ARRUNTA	Gutuna
POSTA ZIURTATUA	Dokumentua, telegrama
INTERNET	e-mail
FAXA	Faktura, inprimakia

Ataza: entzundako elkarrizketatik datuak jaso

- Ikasleek Juliana eta postetxeko langilearen arteko elkarrizketa² **(2. bideo-pasarte)** entzungo dute: langileak gutuna bidaltzeko zer egin behar duen esaten dio Julianari. Ikasleek prozeduraz jabetu eta euren liburuko datu-taula beteko dute. **(10')**
- Julianak bete behar duen inprimakia aukeratuko dute liburuko irudien artean. **(5')**

Feedbacka

- Talde txikitan jarrita alderatuko dituzte erantzunak. **(5')**

Zuzenketa-orria

Non dago Juliana?	Postetxean
Zer bidali nahi du?	Gutun ziurtatua
Nora ?	Ekuadorrera
Prezioa	3€

1 zenbakia duen inprimakia² HABEn moldatutako entzute-gaia

Atazaostea

- Zerbitzua eskaintzen duten establezimendu ugari dagoela adieraziko diezu ikasleei eta horietako batzuk liburuko irudietan daudela. Bestalde, establezimendu horietan egin daitezkeen hainbat gestio ere zerrendaturik dituzte liburuan. Ikasleen eginkizuna gestioak egiteko lekua aukeratzea da irudien artean. **(15')**

Zuzenketa-orria	
Parkinga	Autoa aparkatu
Estankoa	Seilua erosi, telefono txartela erosi, autobus txartela erosi
Postetxea	Dirua bidali (posta-igorpena egin), pakete bat bidali, gutuna bidali
Internet zerbitzua	E-mail bat bidali, txateatu
Anbulatorioa	Mediku txartela eskatu, baja bat eskatu, medikua bisitatu
Geltokia	Bidaia-txartela erosi
Telefono-kabina	Telefonoz deitu
Azoka	Janaria erosi
Liburutegia	Liburu bat eskatu
Kutxazain automatikoa	Dirua atera, telefonoa kargatu

Helburu nagusia:

- Hiriko garraioak ezagutu eta egon daitezkeen bidaia txartelen berri izatea.

Helburuak:

- Informazio txartelak ezagutzea.
- Hainbat bidaia-txartelen berri izatea.
- Bidaia-txartelen ezaugarriak ulertzea.

Zertan den:

- Ikasleek hiriko garraio-motak ezagutuko dituzte. Ondoren, bidaia-txartelen inguruko azalpenak irakurri eta, aurkeztuko zaizkien pertsona bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, bakoitzari zein txartel-mota komeniko litzaiokeen erostea esango dute.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Hirian zehar ibiltzeko garraio moduak ikusiko dituzte ikasleek liburuko irudietan. Beraiek bizi diren hiri edo herrian hauetako zein topa daitezkeen azalduko dute. **(5')**

Ataza

- Ikasleek hiriko garraioetako txartel eta abonua dituzte liburuan. Txarteletako informazioa irakurri eta txartel bakoitzak zenbat balio beharko lukeen esango dute, liburuko prezio-zerrendatik aukeratuz. Ondoren, txarteletan aipatzen diren ezaugarrietan oinarrituta, datuen taula osatuko dute. **(15')**
- Argazkietako lagunek hirian ibili behar dutenez gero, bidaia-txartelak erostera joango dira. Batzuk bertan bizi dira eta beste batzuk kanpotik etorri dira zerbait egitera. Ikasleek irudiak ikusi eta bakoitzarentzat zein izango litzatekeen bidaiatzeko txartel egokia esango dute, aipatzen diren ezaugarriak kontuan izanda. **(10')**

Feedbacka

- Ikasleek binaka jarrita alderatuko dute egindakoa. Ondoren, zuk zeuk galdetu lagun bakoitzak zein txartel erosi duen: *Zein txartel erosi du Jaimek?* **(10')**

Zuzenketa-orria

TXARTELA	GARRAIOAK	NORENTZAT	NON EROSI	ZENBAT DENBORA ERABILI	PREZIOA
METROTRANS	Metroa	Pertsona 1	Leihatilan	Bidaia bat	1€
HIRITRANS	Metroa autobusa Tranbia	Pertsona 1 edo gehiago	Estankotan, kioskoan, ONCEko kioskoan, BBKko kutxazainetan	Kreditua bukatu arte	10€
EGUNTRANS	Metroa	Pertsona1	Metroko leihatilan, prentsako kioskoan, ONCEko kioskoan	Egun bat	3€
FAMILITRANS	Metro, autobus eta tranbia	Familiarentzat	Metroko informazio bulegoan, BBKko bulegoan	Urte bat	270 €
TALDETRANS	Metro eta autobus	10 pertsonako	Metroko leihatilan, prentsako kioskoan, ONCEko kioskoan	Egun baterako	25 €
GAZTETRANS	Metro, autobus eta tranbia	Gazteentzat	Metroko informazio bulegoan, BBKko bulegoan	Urte baterako	175 €

JAIME	METROTRANS
MATI	GAZTETRANS
LOPETEGI FAMILIA	FAMILITRANS
IKASLE-TALDEA	TALDETRANS
TANIA eta NOEMI	HIRITRANS
RAKEL	EGUNTRANS

Atazaostea:

- Ikasleek **3. bideo-pasarte**³ ikusi eta antzeko elkarrizketa osatuko dute, binaka antzetzeko. Liburuko elkarrizketa-zatiez baliatuko dira, marrazkiaren bokadiloak betetzearren. **(20')**

³ Trenean. *BAI HORIXE!* 16. ikasgaia

Helburu nagusia:

- Hiriko zerbitzuetan egun bateko eginbeharrak antolatzea norberaren agendan.

Helburuak:

- Zerbitzuen berri ematea.
- Gestioa non egin adieraztea.
- Zer ordutan egin esatea.

Zertan den:

- Hainbat eginbehar izango dituzte ikasleek, hiriko zerbitzuak erabiliz egitekoak. Bakoitzak eginkizun horiek egunean zehar nola antolatuko dituen erabakiko du eta ikaskideei azalduko die.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Agenda bat dute ikasleek liburuan. Galdetu ea norbaitek erabiltzen duen eguneroko eginbeharrak idazteko? **(5')**

Ataza: eguneko egitekoak agendan idatzi

- Esan ikasleei gaur egiteko eginbehar batzuk dituztela. Horretarako, garrantzitsua izango da zein zerbitzu erabili behar duten ondo zehaztea, zerbitzuak zein ordutegi izaten duen jakitea... (Ikastunitatean zehar horren inguruko informazioa jaso dute eta orain erabili beharko dute ataza burutzeko.) Eta ezer ez ahazteko, liburuko agendan idatziko dute egunean zehar non eta zer ordutan egingo dituzten gestioak, liburuan dauden irudiak oinarritzat hartuta. **(15')**

Feedbacka

- Ikasle bakoitzak osatutako plana azalduko die bere ikaskideei. Ondoren, galde iezaiezu ea errespetatu duten establezimenduetako benetako ordutegia, arazorik izan duten egin beharrekoa non egin aukeratzean... **(25')**

3. Eranskinak

A ATAZA: ZERBITZUEN ORDUTEGIA

1. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 3' 29"

Zer ordu da? *BAI HORIXE!* 11. ikasgaia

Zatiak: ordu osoak 1:14:03 / 1:15:02; eta laurden: 1:15:48 / 1:16:21;

laurden gutxi: 1:17:06 / 1:17:37; osoak eta erdiak: 1:17:50 / 1:18:53

B ATAZA: JULIANA POSTETXEAN

2. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 0' 33"

Juliana postetxean

LANGILEA	Egun on! Zer nahi duzu?
JULIANA	Egun on! Gutun bat bidali nahi dut.
LANGILEA	Nora?
JULIANA	Ekuadorrera.
LANGILEA	Posta arruntaz ala ziurtatuaz?
JULIANA	Ziurtatuaz.
LANGILEA	Orduan, lehenengo, inprimaki hau bete behar duzu.
JULIANA	Konforme.
JULIANA	Listo, bete dut.
LANGILEA	Ondo dago. 3€ dira.
JULIANA	Tori. Eskerrik asko.
LANGILEA	Zuri. Agur!

C ATAZA: BIDAIA-TXARTELAK

3. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 0' 17"

Trean. *BAI HORIXE!* 16. unitatea

BEZEROA	Bilbora mesedez.
SALTZAILEA	Joan eta etorri?
BEZEROA	Bai, berrehun, ezta?
SALTZAILEA	Bai, eskerrik asko.

Material osagarriak

1. ORDUAK

4. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 4' 58"

Zer ordu da? *BAI HORIXE!* 11. ikasgaia

- GIZONA 1 Zer ordu da?
EMAKUMEA 1 Ordu bata.
EMAKUMEA 2 Hortaz, Txipren ordu biak.
GIZONA 2 Eta Sudanen hirurak.
GIZONA 1 Jakina, eta Kanariasen hamabiak.
EMAKUMEA 2 Zer ordu duzu?
GIZONA 2 Ez dut erlojurik. Zer ordu da?
GIZONA 1 Kanariasen hamabiak eta laurden.
GIZONA 2 Orduan, hemen ordu bata eta laurden.
EMAKUMEA 2 Eta Txipren ordu biak eta laurden.
EMAKUMEA 1 Eta Sudanen?
DENAK Sudanen hirurak eta laurden.
NAGUSIA Aizue, zer ordu da?
GIZONA 1 Hiru eta erdiak Sudanen.
NAGUSIA Nola Sudanen?
GIZONA 1 Hiru eta erdiak Sudanen... eta hemen ordu bat eta erdiak.
EMAKUMEA 1 Beraz, Kanariasen hamabi eta erdiak.
EMAKUMEA 2 Eta Txipren ordu bi eta erdiak, ezta?
EMAKUMEA 1 Eta puntu-puntu gainera.
TXINATARRA Egun on!
EMAKUMEA 2 Berdin. Zer nahi duzu?
TXINATARRA Mapa bat. Hemengoa.
EMAKUMEA 2 Gasteizkoa.
TXINATARRA Bai.
EMAKUMEA 2 Bai, berehala.
GIZONA 2 Hara!, txinatarra... eta euskalduna gainera.
EMAKUMEA 2 Zer ordu dugu?
EMAKUMEA 1 Geldituta dago. Ordurik baduzu?
GIZONA 1 Ez, ez dut erlojurik.
EMAKUMEA 1 Zuk ere ez?
GIZONA 2 Ez, nik ere ez.
EMAKUMEA 2 Zer?
GIZONA 1 Hondatuta dago. Galdetu.
EMAKUMEA 2 Hemen duzu.
TXINATARRA Ederki. Eskerrik asko.
EMAKUMEA 2 Barkatu, zer ordu da?
TXINATARRA Bederatziak laurden gutxi.
EMAKUMEA 2 Bai, zakurraren bibolina!
TXINATARRA Nola?
EMAKUMEA 2 Ez, ez ... ezer ez. Ongi ibili Gasteizen!
TXINATARRA Eskerrik asko. Agur!
EMAKUMEA 2 Agur!

4. Material osagarriak

A ATAZA: ZERBITZUEN ORDUTEGIA

1. ORDUAK

55'

Helburua:

- Orduak ezagutzea.

Zertan den:

- Ikasleek orduak egunean zehar antolatuko dituzte. Ondoren ikusiko dituzten egoerako orduak dagozkion herriarekin lotzen saiatuko dira. Ataza bukaeran orduak esan eta esan jardungo dute.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Liburuan dituzten orduak goizeko, eguerdiko, arratsaldeko ala gauekoak diren idatziko dituzte erlojuen azpian. **(10')**

Zuzenketa-orria

07:00	Goizekoa
11:00	Goizekoa
12:00	Eguerdikoa
13:00	Eguerdikoa
16:00	Arratsaldekoa
19:00	Arratsaldekoa
21:00	Gauekoa
23:00	Gauekoa

- Galdetu banan-banan zer ordu izango litzatekeen orain ikasleen herrialdeetan: *Zer ordu da zure herrian?* **(10')**

Ataza

- Herrialde desberdinetako orduak aipatzen diren bideoa **(4. bideo-pasarte)**⁴ ikusiko dute ikasleek eta taulan kokatu beharko dituzte. Egoera non gertatzen den asmatzen saiatuko dira; galdetu nola konturatu diren. **(15')**

Oharra: Ikasleek jarduera osatzeko, behin baino gehiagotan ikusi beharko dute bideoa.

⁴ Zer ordu da? *BAI HORIXE!* 11. ikasgaia

Zuzenketa-orria

EGOERA: Turismo bulegoan Gasteizko mapa bat eskatzen du bezeroak

	ORDUA 1	ORDUA 2	ORDUA 3
Kanariasen	12:00	X	X
Sudanen	15:00	X	X
Txipren	14:00	X	X
Euskal Herrian	15:15	09:30	11:45
Kanariasen	14:15	8:30	10:45
Sudanen	17:15	11:30	10:30
Txipren	16:15	10:30	12:45

Feedbacka

- Osatutako taulak alderatuko dituzte ikasleek eta, zuk egindako galderari erantzunez, idatzitako orduak esan beharko dituzte ozenki. **(10')**

*Zer ordu da Kanariasen?
Eta Sudanen?*

Atazaostea

- Ordularietan zein ordu adierazten den esango dute ikasleek banan-banan. Ordulari bakoitzaren azpian tartea izango dute, nahi izanez gero, ordua aurretik idatz dezaten. **(10')**

EGILEAK

Proiektuaren arduraduna: **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Koordinatzaile didaktikoak: **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)
Sabin Zabala (HABEko teknikaria)
Partehartzaileak: **Ainhoa Gaintza** (Planiker)
Belen Benitez (Planiker)
Errealizazio didaktikoa: **Felix Sainz** (HABEko teknikaria)

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkio Planiker enpresari materialgintza-proiektu honetan parte hartzeagatik.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak:

Gure esker ona ondoren aipatzen diren hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako.

Treanean. *BAI HORIXE!* 16. ikasgaia

Zer ordu da. *BAI HORIXE!* 11. ikasgaia